

ESKUARA

*Eskuaraz mintzo ziren gure arbasoak,
Jendeki, ahaidego, goizalde osoak.
Eskuaraz mintzo gaiten, heien ondokoak,
Haurrekin bereziki, zuek burhasoak.*

*Ait'amen galtzarrean, altzo-besoetan,
Haurretik hasi-eta adin guzietan
Zer da ederragorik Euskual-herrietan?
Mintzai paregabe bat, bat zahar-gaztetan.*

*Munduko mintzoetan nun da hoin garbirik,
Hoin gai on eta nasai, hoin biphil, bizirik?
Eskuarak du elhea labur eta erne,
Erran nahi den hura, laster duzu barne.*

*Hitz huts alferrik gabe, zalhu-ta lañoki
Gauza gorak, barnerak, aiphatus errchki,
Eskuarak bere baithan daduzka ethorki
Ithurburu, zimendu, erroak, deblauki.*

*Bere jitez, indarrez, dela asentatzen,
Laguntz'arrotzik gabe, dela bururatzen,
Nola etcheko-jauna, burua gorarik,
Badagoke Eskuara, ez du nihun zorrik.*

Eskuarak eremuak baititu zabalak,
 Aberats, gizen, nasai..... zer hunen ahalak!
 Gure gogoetari dohazkon asmuak
 Aira ditzazke nola arraina amuak.

Gure bozkarioak ala bihotzminak,
 Eskuaraz ditzazkegu ontsa ager denak.
 Nola aipha ditzazke, chuchenez, legunki?
 Eskuara gozoenaz, aberatsez, eiki.

Lotsa bazira ere Eskuarazko hitzez,
 Eskuarak badituzke hitz berriak antzez.
 Mindegian haziak, landare bezala,
 Hemen ere hitz gayak dire hala hala.

Hitz gayak elgarrekin bil bitez, loth, cherta,
 Ez nola nahi bainan kaskoz moldatuta.
 Eskuara duzularik gozoki chertatzen,
 Asmurik zorrotzenek dira argitzen.

Hala nola chaile trebearen eskuz,
 Irazki eta bilba elgar trebeskatuz,
 Elgarrekin baitire josten eta lotzen,
 Tinki-tinkia gero oihal atheratzen.

Non dire Eskuararen ethorki, adarrak,
 Nork ager hunen erro zail eta zaharrak?
 Gure lehen Ait'amak, Adam eta Eba,
 Eskuaraz mintzo ziren, omen hori bada.

Babeleko dorrean guzien mintzara
 Nahas makhurtu arte omen zen Eskuara.
 Erran zuhurak dio: gauz'onak iraunkor;
 Zerbeit gisaz Eskuara dago hazkar, gothor.

Eskual-herrirat omen jautsi zen debrua
 Eskuara ikhasteko, kechurik burua.
 Zazpi urthe egonik joan behar izan zen,
 Ez eta ba doidoia ziolarik zuzen.

Eskuarak iduri du ibai aberatsa,
Ur garbienak bethi orotan dabilta.
Irakaspen on, argi, ditu barraiatzen,
Eskuaran libru tzarrik ez ierikatzen.

Mahastian sartzetik ohoin aztaparrak
Maiz biribil daduzka hesiko lapharrak.
Hala Eskuarak tieso derauzkigu zaintzen
Ohitura zaharrak, bai sinheste zuzen.

Zamaldunari ihes mando muthiria
Dabila uztar, salto, hezkaitz iduria.
Eskuarari loth zaite, nola zamalduna,
Hezi-eta dukezu azpiko leguna.

Besarkatuz ingura, iraungi, edoski,
Huntzak zuhaitza baitu ihartzen emeki.
Orobat churga churga, haur ttipien gisa,
Zuk ama Eskuarari duzula irrisa.

Eskuara ikhas, mintza, eskuara irakur,
Lagunekin, etchean, elhe, solas, agur.
Erdara behar bada, negurriz erdaraz,
Erdaraz aphaindura, mamia Eskuaraz.

Choriek nahi dute kayolatik ilkhi,
Lilieki ere noizbait jostatu iguzki.
Erdaralat baledi zure ichuria
Erdaraz bahkan mintza, Eskuaraz loria.

Indietarat dohan Eskualdun gazteak
Sor-lekhuko alderat maiz bihotz-begiak.
Ur handiaz bertzalde helduz geroztikan,
Bere ametsak oro ditu Amerikan.

Erdaldunen erdira orobat airatuz
Zaude bada Eskualdun, Eskuaraz mintzatuz:
Joanago, sartenago arrotz mintzaietan,
Akhabo laster laite zutaz piaietan.

*Nola etche choria goibel baita jartzen
Laguna galdurikan, osoki tristatzen,
Nigarren minez zaio begia ilhuntzen,
Orobat Euskalduna delarik kaskointzen.*

*Iphar aldean dirdir dago artizarra,
Ziburun mariñelen kart'eta otana.
Gure zeru gainean dirdir da Eskuara,
Eskual izarrarekin goazen Jainkoa gana.*

J.-B. DARANATZ

Chanoine Secretaire de l'Evêché de Bayonne.
